

# Gazteen arteko indarkeria matxista

AIA  
RAL  
DEA

KOMUNIKABIDE

FAK  
TO-  
RIA

mahai  
gainera



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

# erreportajea



## Zaintza, proiektu pertsonal zein kolektiboak bizigarri izateko akuilu

Bor-bor Aiaraldeko Feminismo Elkarteak zaintzari buruzko gida laburra sortu du, talde lan edo proiektuetan zaintza erdigunean jartzeko. Hamabi orrialdeko argitalpenean hainbat gako eta egoera bildu dituzte.

Nola bermatu norbanako eta taldearen zaintza proiektu batean? Galdera edo kezka horri tiraka sortu du Bor-bor Aiaraldeko Feminismo Elkarteak "Zaintza gida". Herri handi zein txikiak elkarteak izan dituzte gogoan egitasmoa sortzeko orduan, aitortu duteenez. "Taldea edo espazioetan harreman osasuntsuak sustatzeko hainbat praktika eta kontuan hartu beharreko faktoreak jaso ditugu gidan", zehaztu dute elkarteak. Haiek zuzendu dute ekoizpena, eta, aurreratu dutenez, proiektua eskualdean zehar aurkezteko asmoa ere badute: abenduaren 15ean Arrankudiaga-Zollon egingo dute solasaldia, esaterako.

Nola lortu talde edo espazio osasuntsu bat? Galdera horri erantzun diote, beste gai askoren ar-

tean. Zaintza oinarrian jartzeak suposatzen duen eraldaketak eragiten dituen "min eta beldurrak" ere landu dituzte. Era berean, komunikazioa ikuspegi feministatik egiteko hainbat pautak partekatu dituzte argitalpenean.

Zergatik da, ordea, horren garrantzitsua eta estrategikoa zaintza? "Zaintza ahul edo indartsu egoteak eragingo du talde edo elkarte baten bizian", azpimarratu dute egileek. Horregatik, "zaintzaren testometroa" jaso dute atalen artean, barne erradiografiak egiteko hobe foku edo eremu aztertzeko. Modu horretan nahi izan dute kontzientzia eragin, eta eraldaketa baterako bide orria marraztu: "Botere harreman bizigarriak erakitzeke denon egoera, hitz, iritzi eta ekarpenek izan behar dute ba-

lio bera". Zaintza ere lana dela nabarmendu dute: "Elkarte eta kolektibo askotako errealitatea da parte hartze krisia. Generoak, belarriartekotasun arrakalak, parte hartzeko modu eta espazioek eragiten dute, besteak beste, guzti horretan".

Galdera eta gogoeta bidez jarri dituzte kolokan norbanako zein eragileen artean errepikatu ohi diren hainbat joera: Ekintzak antolatzerakoan, trataera, aitortza, espazio —edota hala dagokionean— sari berdina eskaintzen al dizkiegu genero guztiei? Kartel edo euskarrietan jatorri edo ezaguerri sozial ezberdinetako pertsonak txertatzen al ditugu? Gorputz anitzei ematen diegu protagonismoa iruditegietan? Gure taldean, genero aniztasuna ageri al da?

**“Zaintza ahul edo indartsu egoteak eragingo du talde edo elkarte baten bizian”**

Kanpo zein barne komunikazioari heldu nahi izan diote, era horretan.

### Ardura, denena

Zaintzaren arduraz eta beharrez ere mintzatu dira aipatutako gidan, azlaetik bada ere. "Zaintza ez da —edo ez litzateke izan behar— protokolo edo paper finko bat; gure jardun edo praktikaren motorea baizik. Praktikek egiten dute zaintza, ez teoriak".

Taldearen identitatearen baitan nola txertatu, ordea, zaindu izateko bermea? "Elkarte edo talde baten iraunkortasun eta bizigarritasuna norbanako bakoitzaren aitortzan, talde identitatean eta norberaren satisfakzio edo bete-tze mailan dago. Taldearen parte sentitu behar da kide bakoitza taldeak funtziona dezan; eta horrek

## Gazteen arteko indarkeria matxista

elkarrekintza, elkar aitortza zein errespetua dakartza berekin, nahitaez. Gaitasuna eta ahalmena ez dira gauza bera, ordea: ahal izateko gai izateaz gain; nahi edo behar bat ere egon dira; eta talde zein kolektibotik bideratzea beti da errazagoa edo eraginkorragoa. Proiektuek egiten dute bizitza, baita herria ere. Zentzu horretan, guztion ardura dira elkarzaintza eta aitortza”, erantsi dute. Mugimendu Feministek aldarrikatu moduan, zaintzak bizitza guztiak zeharkatu eta markatzen ditu, “horregatik da garrantzitsua neurriak jartzea edo hartzea”.

### Hiruki “borobila”

Hortaz, edozein proiektu “borobila” izateko ezinbestekoa da zaintza: norberarena, taldearena eta proiektuarena. Hirukia bailitzan, erpin horiek orekatuta egon behar dute ezinbestean: norbera ondo ez badago taldea ere ez, eta taldea ez badago ondo proiektua are gutxiago. Bultzatzaile eta mugatzaile izan daiteke horietako bakoitza: partaideen zaintzan dago horretarako gakoa. “Gaur egungo gizartearen eta haren desoreken isla izaten dira gure talde dinamikak, hortaz, begirada kritikoz lantzen ez diren talde harremanek botere desoreka sistematikoak errepikatzen eraman ohigaituzte”, iradoki dute.

Zer litzateke herri bat, elkarte edo taldeak, norbanakoak zaindu ezean? “Oraintsu arte ez zaio erreparatu zaintzaren garrantziaz kolektiboetan”. Nola daude taldea osatzen duten pertsonak? Eta taldeko harreman edo giroa? Proiek-

## Halako prozesu edota hautuetan agertzen diren “beldur eta kezka” ere jaso nahi izan dituzte euskarrian, nola aurre egin jakiteko

tuaren osasun ona, neutroa edota txarra zerk eragiten du? Nola baldintzatzen dute egiteko, adierazteko (edo isiltzeko) ditugun joerek proiektu baten garapena? Nola bilakatu guztientzat espazio edo proiektu bat seguru eta konfiantzazkoa? Zergatik hartzen dute hitzabeti berdinek? Zer egin dezakegu parte hartzea sustatzeko, eta botere harreman osasuntsuak (lidergotza partekatu, parekatu eta parekideak) bultzatzeko?

### Zaintza multidirekzionala

Nola bermatu edo indartu, ordea, taldearen zaintza? Zaintza lana dela aitortuta, ardura hori guztien artean adostutako eta elikatututakoa izan dira iritzi dute ekimenaren sustatzaileek. “Funtsean, lan edo harreman eredu aldaketa planteatzen den unetik, denbora eta aitortza egin behar zaio. Ez da protokolo edo paper finko bat izan behar, ezta egitekoen zerrenda bat ere. Zaintzan taldekide guztiak inplikatuta egon behar dira, benetako aldaketa eman dadin”, gehitu dute. Jakina, aldaketa orok behar du denbora; eta beraz, gomendio argia luzatu dute: gelditzeari ez izatea beldurrik. “Proiektua edozein delarik ere geldialdiak ezinbestekoak dira hausnartu, jabetu eta eraldatzeko. Egiten dugun —hau da, prozesua— aztertu, diagnosia egin, eta aldatu beharrekoen proposamenak adosteko, probaldiari bide emateko. Diagnostiko fasea da batzuetan indar handiena duena edota mingarriena; horregatik hausnartutakoaren eta aldatu beharrekoaren emaitza izango dira probaldiak. Egindakoa ba-

## “Zaintza ez da protokolo edo paper finko bat; gure jardun edo praktikaren motorea baizik. Praktikek egiten dute zaintza, ez teoriak”

lioan jarri, eta hobetzeko gogoeta guneak sortzeari ez izan beldurrik, horrek motibazioan eragina izango baitu”.

Ildo beretik, interseksionalitatearen gaiari ere heldu diote liburuxkan, barne eta kanpo komunikazioan kontuan hartu beharreko hainbat pautaren berri emanez. Alabaina, eraldaketa orok ematen du beldurra edo bertigoa hasieran. Hala uste dute, behintzat, gidaren egileek. Hargatik halako prozesu edota hautuetan agertzen diren “beldur eta kezka” ere jaso nahi izan dituzte euskarrian, nola aurre egin jakiteko. Zentzu horretan, zazpielementu pilatu dituzte, eraldaketa pizte bidean. Batetik, aliatuak bilatzea, prozesura kide guztiak batzeko beharra, “zaintza ez da pertsona edo talde baten ardura. Guztion onura bilatzen duenez, denen inplikazioa izango da beharrezkoa”. Bestetik, “(er)aldaketa ikusgarriak bilatzea, inplikazioa eta motibazioa handitzeko”. Izan ere, praktika edo mikropolitika feministak erdigunean jarrita, emaitzak “segituan” ikusten dira, eta horrek interesdunen inplikazioa piztea edo indartzea eragin dezake, baita kontrako jarrera aldatzea ere. Hirugarrenik, gelditzeari beldurrik ez izatea. Laugarrenik, prozesuaren arrakasta edo porratuaren ardura dinamizatzailearen gain ez uztea. Bosgarrenik zaintzari denbora eskaintzea. Seigarrenik gainkargarik ez hartzea zure gain. Azkenik zaintzak lantalde bat behar duela, talde lana. Gakoetako batzuk plazaratuta, orain, norberaren edota eragileen esku dago aldaketarako giltza.



## erreportajea



# Gaztelekuak, jarrera matxistak eraldatzeko gune?

Jendartean ematen diren egoera matxista asko erreproduzitzen dira Gaztelekuetan. Baina, era berean, espazio horiek badute jarrera horiek eraldatzeko potentzialtasuna. Aiaraldeko Gazteleku batean hezitzaile moduan dabilen Iratxe Letonarekin hitz egin dugu gaiaren inguruan.

Erdibidean kokatzen diren espazioak dira Gaztelekuak. Ez dira haurrentzat diseinatutako espazioak, baina ezta 18 urteko langara gerturatzen ari diren gazteentzako ere. Era berean, ez dira hezkuntza formaleko guneak, baina badituzte bideratutako ekintzak.

Erdibidean kokatze horrek toki mugitu bilakatzen ditu Gaztelekuak, era berean, ordea, eralda-

ketako gune ere izan daitezke, arrazoi beragatik. Hala uste du Iratxe Letonak. Aiaraldeko gazteleku batean dabil hezitzaile lanetan, eta gertutik bizi ditu bertan gazteek erreproduzitzen dituzten dinamikak. "Kontuan hartu behar dugu Gaztelekuan oso pertsona gazteak sartzen direla, baina jada nerabezaroan sartzen ari direnak", hasi da azaltzen, "Gaztelekuak badira espa-

**“Espazioa generoaren arabera banatzen da”**

zio bat zeinetara gazteak doazen kanpoan entzun dituzten gauza guztiekin. Erreproduzitzen dituzte eta hor neurtzen dute euren artean, eta, batez ere, helduok, ze puntutara arte gauza bat egin edo ez”.

#### **Espazioaren banaketa**

Erreproduzitzen diren jarrerei erreparatuta, espazioaren banaketan jarri du Letonak begirada.

“Espazioa generoaren arabera banatzen da. Jolas mugitu eta agresiboenak gizonek hartzen dituzte eta sofa, kartak eta elkarrizketak, aldiz, emakumeek”.

Baina kuadrillen artean sortu den giroak ere badu eragina: “Nabaritzen da kuadrilla mistoak daudenean espazioa euren artean orekatzen dela. Baina kuadrilla oso maskulino bat datorrenean, guztiz apurtzen du dina-

## AZAROAK 25, LAUDIO PROGRAMAZIOA

AZAROAK 23 · 19:00 · KASINOA  
**FEMINISSIMAS**

AZAROAK 24 · 10:30 · ALDAI PLAZA  
**ARTILE ASALTOA**

AZAROAK 24 · 18:00 · KASINOA  
**BELDUR BARIK**

AZAROAK 24 · 18:30 · ARETAKO LIBURUTEGIA  
**DEI IEZADAZU SORGINA**

AZAROAK 25 · 12:30 · HERRIKO PLAZAN  
**ELKARRETARATZEA**

AZAROAK 25 · 19:00 · LA MILAGROSA  
**EL SUEÑO DE SULTANA**

AZAROAK 29 · 18:30 · KASINOA  
**IZAN ONDOREN ZARENA**

INFORMAZIO GEHIAGO  
944 03 48 50 · [laialaudio@ludio.eus](mailto:laialaudio@ludio.eus)



## Gazteak eta indarkeria matxista

mika eta espazioa segregatzen da, edo pertsona batzuk ez dute Gaztelekuan euren espazioa topatu edo alde egin behar dute".

Espazioanork eta nola dinamizatzen duen; horrek markatzen du diferentzia, bere ustez: "jazotzen diren egoerei jartzen zaien arretan eta horiei aurre egiteko abiatzen diren mekanismoetan dago gakoa. Horren arabera, betiko joerak erreproduzitzen dira edo ez".

### Begiralearen jarrera

Baina nola kudeatu behar dira horrelako espazioetan eman daitezkeen jarrera matxistak? "Adi egotea" da funtsezkoena, Letonaren aburuz: "Egia da horrelako dinamika badirela horren impliziturik ezean batzuetan zaila den identifikatzea, ez baduzu pausu bat atzera ematen. Nik uste dut hezitzaile edo dinamizatzaileen lana badela behatu eta hausnartzea horren inguruan, ez soilik indarkeria matxistaren esparruan, baita beste dinamika batzuei dagokionez ere, botere harremanak kasu".

Era berean, oinarrian dagoenari erreparatzearen beharra jarri du Letonak mahai gainean, unean une eman daitezkeen gertaerengatik itsutu gabe: "Jarrera batzuk oso argi ikusten dira eta arreta deitu ahal digute, baina egoera irakurtzen ere jakin behar da".

Horri lotuta, hezitzaileak uste du, egoera larria ez bada, agian ez dela egokia zuzenean esku hartzea. "Ez dugu ahaztu behar gazteak direla, ikaste prozesu batean daudela eta, oso modu bortitzean sartzen bagara, agian pertsona horren prozesua apurtu dezakegula". Gauzak hala, "pertsona bakoitzak bizi duen unea" interpretatzen jakin behar dugu, Letonaren aburuz, gero horren arabera jokatzeko jakiteko: "Gauza larria ez bada, agian ez da zertan

unean bertan esku hartu. Gero-rako gorde daiteke, eta gero-go sortzen den beste elkarrizketa bat baliatu gertatutakoaz hitz egiteko". Adibide bat jarri du hori azaltzeko: "Askotan gertatzen da, adibidez, oso matxistak diren pelikula edo jolasak eskatzen dituztela edo betiko molde erromantikoak erreproduzitzen dituztenak. Ba produktu horiek ere izan daitezke baliabide bat eurekin batera ikusteko eta eztabaidatzeko. Ona da horrelako gatazkak egotea, prozesu hori gertutik jarraituko duen pertsona bat badago, bestela arrikusua izan daiteke".



**“Jarrera batzuk oso argi ikusten dira eta arreta deitu ahal digute, baina egoera irakurtzen ere jakin behar da”**



**AIARAKO KUADRILLAN  
INDARKERIA  
MATXISTARIK  
EZ!**



## Orozkon AZAROAK 25

**AZAROAK 24**  
"Aiaraldeko Beldur Barik Lehiaketa 2023". Sari-banaketa, Pantxika Lamour-en eskutik, 18:00etan Laudioko kasinoan.

**AZAROAK 25**  
Elkarretaratzea, 19:00etan, Zubiaur Plazan.

**AZAROAK 26**  
"20.000 especies de abejas" filma ikusi eta ondorengo solasaldia, Estibaliz Urresola Solaguren-zuzendariaren eskutik. 19:00etan, Donibane Aretoan.

**AZAROAK 29**  
"¿Quién y cómo se cuida en Orozko? Una aproximación a las realidades y necesidades de mujeres cuidadoras" proiektuaren aurkezpena. 17:30tan, Donibane Aretoan. Ondoren: Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen eskutik, hitzaldi informatiboa.

**EMAKUMEENGANAKO  
INDARKERIAREN AURKAKO  
NAZIOARTEKO EGUNA**

orozko



## erreportajea

# Gizonak indarkeria matxistaren aurrean, generoari traizio



Ibai Fresnedo Hiruki Arrosa kooperatibako eta EHGAM elkarteko kideak Faktorian hartu zuen hitza eztabaidatzeko gizonaen ardurari buruz indarkeria matxistaren aurrean.

Ibai Fresnedok ez du inolako arazorik bere burua "marixutzat" jotzeko eta gizonei —beriziki heterosexuak direnei— gonbidatzeko anaidia heteropatriarkalari traizio egitera. Hiruki Arrosa LGTBIQ gaiak jorrazten dituen kooperatibako eta EHGAM elkarteko kide gisa, hitza hartu zuen Aiaraldeko Ekinzen Faktorian zuzenean gizonaen hitz egiteko eta animatzeko alde batera ez egiten indarkeria matxistaren aurrean. Ez soilik bortizkeria zuzena borrokatzeko, baita sinbolikoa ere.

Izan ere, Fresnedoren aburuz, indarkeria matxista ukatzen duten diskurtsoak ez daude bakarrik eskuin muturrean, nahiz eta esparru politiko horretan kokatzen diren, politikoki zuzenak ez direlako. Bortizkeria matxistaren kontrako jarrerak instituzionalizatu diren neurrian, gizon askok sentitzen dute euren boterea arriskuan dagoela. Gizonaen iruzkin ukatzaileentzat, Fresnedoren iritziz, nabarmen lagundu du instituzionali-

zazioak, ze hori ez da beti positiboa: "Askotan hedabideek morbo hutsetik lantzen dute indarkeria matxista".

Horrela, Hiruki Arrosako kidearen ustez, iritzi orokorrak baztertu behar dira: "Zapaltzaila eta zapalduen dikotomiak baliotu du zentzu orokor batean, baina indarkeria errealtate askoz konplexuagoa da eta ikuspegi komunitarioa beharrezkoa da. Une hauetan mugimendu feministak Euskal Herrian abiatutako hainbat prozesutan buru-belarri sartuta gaude, baina zigorraren balioetatik at. Hain zuzen, feminismoa eta zigorra ez direlako bateragarriak".

### Komunitatea, norbanakoa

Fresnedok behin eta berriro azpimarratu zuen ikuspegi kolektiboaren beharra indarkeria matxista alboratzeko: "Feminismoak subjektu nahiko definitua duenez, gizonaen alde batera egiten dute haien arazoi dagokienez, baina feminismoa ez da emakumezkoen

**“Askotan hedabideek morbo hutsetik lantzen dute indarkeria matxista”**

**“Maskulinitate toxikoa ez da kaltegarria soilik emakumeentzat, bada kaiola bat ere gizonaenentzat”**

Aiara  
**BERDINTASUNA**ren  
Alde

**AIARAN  
INDARKERIA  
MATXISTARIK EZ!**

**AZAROAK 25 INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA**

**Azaroak 25, larunbata. KONTZENTRAZIOA FERIALEAN. 12:00etan**


**Azaroak 28, asteartea, IRAKURKETA KLUBA ANGELA NZAMBI IDAZLE AFRIKARRAREKIN. 17:00etan Emakumeen Gelan. Arespalditzan.**

**AZAROAK 25**  
indarkeria matxistaren aurkako eguna

**Azaroak 25, larunbata  
KONTZENTRAZIOA**  
12:00etan Kultur Etxe parean

**Azaroak 26, igandea  
KANKANEO TEATROA**  
18:00etan Kultur Etxean

## Gazteen arteko indarkeria matxista



kontua, baizik eta guztiona. Egiturazko borroka da”.

Zentzu horretan, ekintzaileak bi bide proposatu zituen. Alde batetik, norbanakoen gizontasuna —hau da, norbera gizar-tearen zein tokian dagoen bere generoaren arabera— aztertzea eta hausnartzea zein neurrian den kaltegarria: “Maskulinitate toxikoa ez da kaltegarria soilik emakumeentzat, bada kaiola bat ere gizonetarakoentzat. Maskulinitate heteropatriarkalak markatzen du gizona gerlaria, babeslea edota heroia izan behar dela eta beldurra izan behar diola dependentziari eta zaugarritasunari. Askotan hor dago misoginia, homofobia edo emakumezkoak errudun bilakatzeari jasan duten indarkeria matxistagatik”.

Bestetik, ikuspegi hori guztiz beharrezkoa izanik ere, Fresnedok adierazi zuen hausnarketa horren isla kolektiboa ezinbestekoa dela: “Azken urteotan maskulinitatea lantzeko gizon taldeak sortu dira eta ondo dago gizonetako heterosexualak biltzea negar egiteko eta elkar ukitzeko, baina horrek ez du eraginik norbanakoen esparruan geratzen bada. Azazka-

lak margotuta eta arrosaz jantzita joan zaitezke eta gizon femeninoena izan, baina ez bada eraldaketa kolektiborik lortzen, ez du balio handirik izango. Horregatik traizio egin behar zaio anaidi heteropatriarkalari, gatazkarako prestatu eta kritikoak diren beste gizonetakoak identifikatu”.

### Maskulinitate berriak

Arestian aipatutakoari lotuta, Fresnedok argi utzi zuen, askok horrela izendatu arren, ez dagoela maskulinitate berririk. Batetik, kontzeptuak harrakadak dituelako. Bestetik, horrek ezkututzen duelako gizonetako orok ez duela maskulinitatea bizi modu berean historian, baina ikusezinak bilakatu dituela historiak.

Horrez gain, Hiruki Arrosako kideak nabarmendu zuen indarkeria sinbolikoa identifikatzeko garrantzia, bortizkeria ikusezin horrek sostengatzen baititu eraso zuzenak. Gauzak horrela, indarkeria mota horri mikromatxismo ez izendatzea eskatu zuen, beste bortizkeriaren eura berean baitago, bitasun ezberdinarekin adierazten bada ere.

### AZAROAK 25 INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA Artziniega 2023

#### AZAROAK 25, larunbata

13:00 PRESTAKETAK  
Musika, matxismoaren aurkako esaldiak jartzeko Gunea, aterkiak morea eta bufanda moreak

13:30 KONTZENTRAZIOA  
Koro feminista, esaldiak eta olerkiak irakurtzea. Amaitzeko, Txoriak Txori abestuko da.

#### AZAROAK 29, asteazkena

19:00  
Irakurketa Kluba Angela Nzambi idazle afrikarrarekin, liburutegian.

**ARTZINIEGAN INDARKERIA MATXISTARIK EZ!**

# Azaroak 25 agenda



## Azaroak 23, osteguna

### Urduñan

18:30 // Alondegian  
**Mikroantzerkia eta biodantza**

## Azaroak 24, ostirala

### Laudion

10:30 // Aldai Plazan  
**Artile Eraso**

18:00 // Kasinoan  
**Beldur Barik sari banaketa**

18:30 // Aretako liburutegian  
**“Dei ieazadazu sorgina” antzerkia**

### Aretan

16:30 // Aretako Kultur Etxean  
**Umeentzako tailerrak eta A25 pankarta tailerra**

### Urduñan

16:45 // Alondegian  
**‘Una joven prometedora’ zineforuma**

19:00 // Foru Plazan  
**Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako kontzentrazioa**

## Azaroak 25, larunbata

### Okondon

11:00 //  
**Artile lanak jartzea**

12:00 //  
**Escape room**

13:00 // Kultur etxe parean  
**Elkarretaratzea**

### Arrankudiaga-Zollon

11:30 // Gizarte Etxean  
**O-8 urte bitarteko umeentzako ipuin kontalaria**

12:00 // Gizarte Etxean  
**Puntu moreen tailerra**

17:16 // Tren geltokian  
**Trena Bilboko manifestazioan parte hartzeko**

### Aiaran

12:00 // Arespalditzako ferialean  
**Elkarretaratzea indarkeria matxistaren kontra**

17:00 // Menagarain  
**Zineforum “Emakumeak zinemaren bidez”**

### Amurrion

12:30 // Juan de Urrutia plazatik  
**Manifestazioa, Amurrioko Mugimendu Feministak eta Emakumeon\* Sareak deituta**

### Aretan

17:30 // Aretako Kultur Etxean  
**Sorgin zapatua: ipuin kontalaria, eskulanak eta askaria**

## Azaroak 26, igandea

### Arrankudiaga-Zollon

13:00 // Arrankudiagako plazan  
**Women In Black Action**

### Orozkon

19:00 // Donibane Aretoa  
**“20.000 especies de abejas” filma eta Esti Urresolarekin solasaldia**

## Azaroak 27, astelehena

### Urduña

17:00 // Zahar Etxean  
**Kaitin Allenderekin monologoa**

## Azaroak 29, asteazkena

### Orozkon

17:30 // Donibane Aretoa  
**“Nork eta nola zaintzen du Orozkon” hitzaldia Bizkaiko Etxeko Langileen Elkartearen eskutik**

### Amurrion

18:00 // Antzokian  
**“Hitz kolpez”**

### Laudion

18:30 // Kasinoan  
**“Izan ondoren zarena” performancea**

